

Bidebieta

Dorreak izeneko auzo elkartearen sortzekotan

Raul Perez | fnoa.: 943 396209 |

dorreak izeneko auzo elkartearen eratzeko ari da auzotarren kezka eta nahiak ezagutzera eman eta auzoaren alde lan egiteko asmoz. Oraingoz hamaika kidek osatzen dute sortze prozesuan dagoen elkartearen, eta bakoitzak arlo zehatz baten ardura izango du. Data erabakitzeke dagoen arren, elkartearen datozen asteotan aurkeztuko da jendaurrean. Jose Joaquín Eguskiza izango da presidentea eta berak dioskunez, " *auzoa ondo koordinatuta egon dadin, auzotarren arteko komunikazio sareak ona izan behar du* ".

Elkarteak auzotarren iritzia biltzeko deialdia egingo du hilean behin Moneda baserrian. Hala eta guztiz ere, beste zenbait bilera egitea ere aurreikusita dago elkartearen, auzotarrek zenbait gai buruz iritzia eman dezaten. Bilera guztiak Moneda baserrian, Kontadorearen, Gaztetxokoan, jubilatuen elkartearen eta elizan egingo dira.

Lehen proposamenak bideratuta

Dorreak auzo elkartearen zenbait proposamen eta eskaera egin dizkie udal ordezkari-



Dorreak auzo elkartearen Moneda baserrian egingo du bere aurkezpena.

riei. Alde batetik, Tailer Eskola Kontadoreseko ekonomatu ohia berritzen ari da eta beheko solairua itxi gabe uzteko asmoa zuen. Auzo elkarte honek beheko solairua ixtea eskatu zuen drogazaleen lekua bihurtzeko zedin. Udalak auzotarren eskaera onartu berri du.

Eskaera gehiago

Bestalde Dorreak-ek kiroldegi aldameneko saski-

baloi pistako atea giltzez ixtea eskatu du. Inguruko bizilagunak kezkatuta daude zenbait lagun hara joaten direlako lo egitera.

Bestalde, azken eskaera ere egin dute: San Luis ikastetxera eta Herri Ametsa ikastolara joateko bideak ez du espalorik tarte batean. Neska mutil asko dabilen lekua izanik, espaloia egitea eskatu du Dorreak auzo elkarteak.

Elbarri zerebralen futbol txapelketa

Dordoka kirol elkartearen antolatuta, estatuko elbarri zerebralen areto-futbol txapelketa jokatu da apirilaren 7tik 9ra, Bidebieta kiroldegian. Guztira sei taldek parte hartuko dute.

AGINAGA SAGARDOTEGIA

URTE OSOAN IREKITA

Egunero zabalik astelehenetan ezik txotxetik

Aginaga - USURBIL • Tfnoa.: 943-366710 - 943-370668

ANDRAMIX

Zabaleta kalea, 10 Donostia

TEL.: 943 28 00 00

AINHOA taberna

Pintxoak eta kazuelitak

Sarroeta 90, MARTUTENE